

# Haurrekin lotutako gizarte eta hezkuntza arloko esku-hartzea berriro aztertzea

SAN FRANTZISKOKO  
UDALTEGIA  
MARIAREN BIHOTZA  
PLAZA, 4  
BILBO  
**IRAILAREN 27**  
11tik 14ra

ESKU-HARTZE ESPARRU HORREKIN LOTUTAKO SEKTOREKO  
ERAKUNDEENTZAKO GOGOETARAKO ETA ALDERAKETARAKO GUNEA

## AURKEZPENA

Behatokia osatzen dugunok beti saiatzen gara topaketako aukera eta proposamen ugaritara irekita egoten. Gure ustez, garrantzitsua da sektoreko eguneroko lanean sortzen diren mugimendu eta egoerei erantzutea. Hala, behatoki gisa garatzen dugun programazioaz gain, batzuetan, eta ezagutza eta harremana abiapuntutzat hartuta, jasotzen ditugun eskari batzuk aprobetxatzen edo haietako batzuei erantzuten saiatzen gara.

Horretarako, eta formatu arin eta egokitutakoetatik abiatuta, eta gure gaitasun eta ezagutzak oinarri hartuta, laguntza-zerbitzua eskaintzen dugu baldin eta Behatokiaren misioaren eta balioen arteko esparruarekin (hirugarren sektorea sendotzea, trukea eta elkarlana bultzatzea, parte-hartzea eta aldi berean independentzia, sektorearen eta/edo jarduera esparru ugarien zerbitzura...) bat badator.

Oraingoan, Kataluniako [PERE TARRES fundazioko gizarte eta hezkuntza arloko zentroen sareko](#) profesionalen talde handi batek Bizkaira bisita egin duela jakin dugu. Horretaz baliatuta eta hainbat erakundek egindako eskariari erantzunez, behatoki gisa, egokia iruditu zaigu zuen gizarte eta hezkuntza arloko esku-hartzea haurrekin garatzen ari zareten sektoreko erakundeei irekita egongo den topaketarako gunea irekia proposatzea. Esku-hartze esparru horretako oraingo egoeraren inguruko gure esperientziak Kataluniako lankideekin batera partekatu ahal izateko tailerra litzateke.

## HELBURUAK

- Hurrekin egindako gizarte eta hezkuntza arloko esku-hartzearen egungo egoeraren inguruko gogoeta egitea elkarrekin.
- Elkarrekiko hobekuntza bultzatzeko ikuspegiak, esperientziak, gogoetak eta jardunbide egokiak partekatzea.

## EGITARAUA

11:00 Bertaratu diren pertsonen **harrera** eta jardunaldiaren aurkezpena.

11:15 Elkar ezagutzen. **Lehen harremanak finkatzea.**

11.30 **Gogoetarako mahaiak.** Lau gairen inguruko ikuspegiak partekatuko ditugu mahai horietan:

- **Hautzaroaren egoera gure esperientzietatik abiatuta.** (Haurren eskubideak gaur egun, egoera kezagarriak, aukeren guneak, erronkak...).
- **Metodologiak eta jardunbide egokiak.** (Zer aurrerapen gehitu dugun, zer jardunbide egokiri eman diezaiokegun balioa esku-hartzearekin, kudeaketarekin eta lan egiten dugun pertsonekin eragin zuzena duten erakundeekin lotuta).
- **Administrazio publikoekiko harremana.** (Harremanen ereduak, beharrak, laguntzak, babesak, deialdiak...).
- **Pertsonetikiko, kolektiboekiko eta gertuko inguruneekiko harremana.** (Hartzaileen parte-hartzea, auzoekiko harremana, sareko lana, elkarrekiko laguntza bultzatzea eta abar).

12:30 **Galdera berriei irekita dagoen gunea.** Gune irekiaren metodologia bidez, kezkatzen gaituzten beste gai batzuk landu nahi ditugu horien inguruan eztabaidatzeko.

13:15 **Osoko bilkura eta jasotzea.**

14: 00 **Tailerraren amaiera.**

## NORI ZUZENDUTA DAGOEN


Tailerra gizarte eta hezkuntza arloko ikuspegitik hautzaroaren inguruan lan egiten duten hirugarren sektore sozialeko erakundeei zuzenduta dago. Esperientzietatik abiatuta partekatzeko gunea da. Horrenbestez, erakundeetan lan hori rol ugaritatik (kudeaketa, zuzeneko edo zeharkako esku-hartzea eta abar) betetzen duten pertsonen irekita dago.

## NOLA IRITSI SAN FRANTZISKOKO UDALTEGIA

San Frantziskoko Udaltegia

Mariaren Bihotza plaza, 4. Bilbo

Google Maps. <https://cutt.ly/lwKJHlr>



EMAN IZENA ESTEKA HONEN BIDEZ:

<https://forms.gle/2nFHJQhZ3rGJSKgK7>

Mezua [promocion@3sbizkaia.org](mailto:promocion@3sbizkaia.org) helbidera bidalita edo  
94 400 33 55 telefono-zenbakira deituta